



245. zenbakia

• Azaroa 2024 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Noraezean

Mundua noraezean dabil.
Bai. Mundukoak, hobeki esanda.
Hau erokeria da, handia oso.
“Gizakia gizakia rentzat, otso”.
Kontsolatzeko edo,
itxaropen guztia ez galtzeko,
tarte badela pentsatu nahi dut,
zeozer, hondamen hau konpontzeko.
Hitzak soberan dira.
Ez da erraza.
Bada garaia, bakoitza bere etxetik
zerbait egiten hasteko.



Joxe Jabier Elizalde

Irailaren 16tik aurrera

Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:

EGUN ERO magazina

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiraletan, goizeko 10:00etan, txandakatuz:

EGUN ERO KANTUZ eta MEMORIAREN TXOKOA

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,

BROMA GUTXI

(larunbatetan 20:00etan errepikapena)

Eta, gainerakoan, Arroza sareko irratsaioak eta Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika, podcast desberdinak...

PIZTU ESAN ERRAN!

FM-ko 107.9 edo

amezti.eus/irratia/zuzeneko



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Isabel Oiartzunen baratza Anuen. Egilea, Isabel Oiartzun.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira azaroaren 8an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Artzainen memoria*

07

Ingurumena. *Ingurumena*

08

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Herrian bertan. *Olagueko okindegia*



16

Ekimenak. *Lan babestua*

20

Elkarriketa. *Basaburuko ahaztuak*

22

Aspaldiko kontuak. *Berueteko lapurrak (VII)*

26

Ardo freskotik. *Ezinezkoa dela*

28

Kirola. *Ultzamako Herri Kirol taldea*

30

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Ultzamako Liburutegia*

34

Jaiotzak, eskontzak eta heriotzak. *Iraila*



Ameriketan artzain aritutako eskualdeko 200 herritar baino gehiagoren informazioa bildu da

Euskal Artzainak Ameriketan elkarteak Estatu Batuetara artzain joan zirenen milaka historia bildu ditu hogeitaz urtez. Joan zen urtean, gure eskualdearen txanda zela pentsatu zuten. Lantz, Anue, Atetz, Odieta, Ultzama, Basaburua eta Imotzen informazioa bildu nahi dute. Horretarako, bertako herritarren laguntza ezinbestekoa izaten ari da. Lourdes Iraizotz Etxandi eta Ana Olaiz Goñi irazoztarrak, artzainen senitartekoek lagunduta, izugarrizko lana egin dute. Gutxienez, gure eskualdetik Estatu Batuetara artzain joan ziren 215 herritarren datuak bildu dituzte. Urriaren 12an elkarteak pesta handia Berueten ospatu zuten, 300dik gora artzain, senide eta herritar bildu ziren.

Euskal Artzainak Ameriketan elkartearen hazia 2005ean jarri zen. Laura Igantzi Mitxelenak kontatu digu, artzain baten alabak eta elkarteak presidentek: "Artzainen munduko elkarteak kongresu bat antolatu zuen Arantzazun, 2005ean, eta aita gonbidatu zuten. Gutun bat iritsi zen etxera eta hura zer zen ikusteko animatu ginen. Nire harridurarako bost besterik ez ziren nafarrak, nire aita eta Sunbillako lau. Orduan, zerrenda bat egitera konprometitu nintzen". Angel Igantzi Elizondo aitarekin etxetik ibili zen, artzainak izandakoekin eta senitartekoekin biltzeko: "Orduan konturatu nintzen artzain

baten alaba izan arren ez nekiela ezer diasporari buruz eta altxor bat zela pentsatu nuen".

Informazioa biltzeaz gain, artzainak bildu zintezten eta haiei errekonozimendua egiteko besta txiki bat antolatu zuen Lesakan, bere herrian. Urtebete geroago, 2006an lehenengo besta handia; eta, 2011n, biltzen ari ziren informazio guztia kudeatzeko, elkarteak sortu zen: "2006an egin genuen lehenengo besta, gaurko formatuarekin. Hagitz gogorra izan zen nire aita hiru aste lehenago hil zelako. Besta ondoren amak esan zidan: "Laura, honekin segitu behar duzu.

Hagitz egun polita izan da eta ezin duzu utzi, zure aitari egiten diozun omenaldia da" ". Orduz geroztik liburak editatu dituzte, bi bidaia egin dituzte artzainekin Ipar Amerikara, festa eta datu ikerketarekin jarraitzen dute eta bi museo sortu dituzte: bat Elgorriagan eta bestea Orbaizetan. Orain, artzainen ibilbidea osatu nahi dute: "Euskal Herri mailan emigrazioa pairatu duten herrietatik pasatuko den ibilbidea izanen da. Memoria hori betirako gordetzeko asmoz egin nahi dugu, emigrazioaren memoria".

Memoria kolektiboa osatzen

Laura Igantzik aipatu bezala, memoria hori osatzea izugarri garrantzitsua iruditzen zaie Ana Olaiz Goñiri eta Lourdes Iraizotz Etxanizi. Biak irazozkoak, elkarlanean aritu dira eskualdeko artzainen informazioa biltzeko. Lourdes Iraizotzek azaldu digu: "Anak badu urrutiko senitartekoren bat, baina ez genuen horregatik egin, inguruko informazioa biltzea zelako eta polita iruditzen zitzaigulako baizik". Ana Olaiz: "Gure belaunaldiko jendeak artzain asko ezagutu ditu eta oso presente ditu. Oso ohikoa zen, eta gertutik bizi genuen. Merezi duen omenaldia eta errekonozimendua jaso ez duen taldea dela iruditzen zitzaigun, etxea uztea oso zaila baitzen garai hartan. Horregatik sartu gara honetan".



Juan Mikelez, Bordaxarrekoa, Aritzukoa, hartz batekin Washingtonen. Han hil zen, Colfaxen, 1998an



215 artzainen historiak bildu dituzte, baina oraindik ere informazioa jasotzen ari dira. Esan digute-nez, Ultzama aldetik joan zirenen gehiengoak 50 eta 70. hamarkaden artean egin zuen, azkenekoek 80.ean. Informazio gehiena senitartekoen bitartez jaso dute. Ana Olaiz: "Bailara guztietan, udalerrri guztietan lortu dugu zuzeneko senitartekoren batekin hitz egitea. Ameriketara izan diren edo gaur egun jarraitzen duten artzainen informazioa eman digute, atsegin handiz. Gainera, fotografia ugari bidali dizkigute, 250 inguru, dokumentazio oso garrantzitsua da". Beharra zutela ikusi duten galdetuta, biok zalantzarik gabe erantzun dute baietz. Lourdes Iraizotz: "Haien burua adierazterakoan hunkitu ere hunkitu dira. Lehenengo aldia da jende honen historia jasotzen dela hemen". Ana Olaiz: "Memoria hori osatzeko balio izan du eta jende bat izugarri sartu da lan horretan. Semere-alabak, ilobak eta oinordekoak han jarraitzen duten senitartekoe-kin jarri dira kontaktuan informazio gehiago eskatzeko eta berriro gurekin hitz egiteko... Horregatik bakarrik ia izugarria izan da, ederra".

Itsasontzi batean, Euskal Herritik kanpora...

Ezezagunera salto bat zen, etxea, familia eta lagunak utzi eta ezagutzen ez zuten herrialde batera joaten ziren. Laura Igantzik bere aitak kontatutakoa adierazi digu: "Aitak babak, babak eta babak jakiteko bertzerik ez zutela kontatzen zigun, lanean eta mendian ibilia zen baina dirurik ez zela egiten esaten zigun. Eta nora eta Ameriketara joatea erabaki zuen. Orain erraten duzu, ez zekiten ezta nora joaten ziren ere!". Izan ere, gaur egun, hemen behintzat, telefono bat sakelara eta interneterako sarbidea izan ohi dugu. Baina, nolakoa izanzen litza-teke horrelakorik gabe atzerrira joatea? Iraizotzek eta Olaizek kontatu digute. Lourdes Iraizotz: "Garai hartan joan eta hilabeteak pasako ziren joandakoaren berri izateko". Ana Olaiz: "Hemendik ateratzen ziren lehenengo aldia zen eta hizkuntza ez zuten ezagutzen", Iraizotzek gehitu: "Batzuetan norbaitendako lan eginen zutela pentsatuz joaten ziren, baina iristerakoan beste leku batera bidaltzen zituzten. Lanaz oso gutxi zekiten eta herrialdeaz ezer ez".

Salto gogor horretan, baina, euskal sarea ere aurkitzen zuten Estatu Batuetan. Ana Olaiz: "Joaten zirenen gehiengoak kontakturen bat bazuen han". Lourdes Iraizotz: "Adibidez, harrezkero lanean zegoen norbait eta lana eskaintzen ziena". Sare horretan, paper garrantzitsua zuten euskaldunek zabaldutako hotelek. Hotel Vascongado edo Iraizotzko herritar batek jarri zuen Du Midi ostatua izan ziren batzuk. Ana Olaiz: "Maleta txiki-txiki batekin iristen ziren, ez baitzuten askoz gehiago. Maleta hotelean uzten zuten eta *rantxora* edo mendira joaten ziren hilabete batzuetarako". Ostatuan maleta eta dirua gordetzen zieten, lanean egon behar ziren bitartean, eta, behar zutenean dirua ere aurreratzen zieten, laguntzeko. Lourdes Iraizotzek kontatu digu: "Artzainak itsasontziz iristen ziren. Ostatuetatik portura joaten ziren haien bila, "bada hemen euskaldunik?" galdetzen zuten. Beuntzako herritar batzuek kontatu ziguten paper batekin iristen zirela, haien izenarekin, orduan taxi gidari batek hartu eta hotelera eramaten zituen. Laguntza sarea izugarria zen".

Frank Auza, Gerendiaingo Monsorena etxeko Maistertokian sortua

1915ean amarekin eta anai arrebeekin batera emigratu zuen aitarekin eta beste anaia batekin Phoenixen elkartzeko. *Lockett Sheep Company* enpresa erosi eta *Auza Sheep Company* sortu zuen. 40ko hamarkadan, beste artzain batzuekin batera, 200 metro baino gehiagoko luzera zuen zubi bat eraiki zuen "Green River" ibaiaren gainean, Bloody Basinen (Arizona). Olaizek eta Iraizotzek, kostata, baina Gerendiaingoa zela baieztatzea lortu zuten. Ana Olaiz: "Frantzisko deituko zen baina hara iritsi eta denborarekin bertako izena hartzen zuten, Jose zirenek Joe, adibidez. Zubia ikustekoa da, ardiak banan-banan, hilera batean, pasatzen ziren".

Gure artzainek aztarna utzi zuten itsasoaren beste aldean, beraz. Baina ez han bakarrik hemengo patrimonioa mantentzeko ezinbestekoak izan ziren, haiek egindako diruarekin konpondu eta zaharberritu baitziren gure eskualdeko etxeak.



Frank Auza berak bultzatutako zubiaren ondoan. Green River ibaia, Bloody Basinen, Arizonan. Argazkia, Doyle, 1987



Gu ere migranteak izan ginen

Behin han, nolakoa zen haien bizia? Olaizek eta Iraizotzek esan digutenez, gehienek bakardadea aipatu dute, Iraizotz hasi da: "Lan izugarria egiten zuten. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean bakarrik izaten zuten jai. Bestela, astelehenetik igandera aritzen ziren lanean. Lana lasaitzen zen garaietan bakarrik hartu zezaketen egunen bat libre. Garaiaren arabera *rantxoan* aritzen ziren, ardiek erditzen zutenean, adibidez, bestela mendira alde egin behar zuten eta han hiruzpalau hilabete eman behar zituzten bakarrik, 2.000 buruko artalde batekin. Kanperoa besterik ez zuten ikusten tartean, 7 edo 10 egunean behin janaria eramaten zielako. Riflerekin joan behar ziren, coyoteak zeudelako eta hartzak ere bai...". Olaizek gehitu du: "Guztiekin esaten dute gogorrena bakardadea izan zela. Hori eta inmigranteak izateari ez ziote la inoiz uzten. Nahiz eta patroiek euskal artzaina izugarri baloratzen zuten, oso langilea zelako, gutxiago ordaintzen zieten. Migrazioaren alde gogorra ere bizi izan zuten".

Horregatik, bizimodua hobetzeko gurera etortzen diren horietan pentsatzea garrantzitsua dela uste dute: "Hara joan ziren eta oso gaizki pasa zuten gaur egun gurenera etortzen direnak bezala. Gure umeei kontatu behar diegu, aitatiek edo birraitatiek ere joan behar izan zutela eta gutxiesten zizutela", esan du Olaizek.

Emakumeak ere

Artzainen historiekin batera, Ana Olaizek eta Lourdes Iraizotzek emakumeen historiak ere ekarri nahi izan dituzte. Iroizotz hasi da: "Emakumeen historiak biltzen ere saiatu gara. Asko ez direlako, baina oso paper garrantzitsua jokatu zuten eta gainera oso-oso ausartak izan ziren. Senarrak laguntzen

Beuntza, artzain herria

Atezko Beuntza herrian zenbatu dira artzain joandako pertsona gehien. Zenbatu dutenez, gutxienez, 32 artzain joan ziren Ameriketako Estatu Batuetara. Etxe bakoitzetik behintzat bat joanen zen, beraz?

zituzten *rantxoetan* edo hoteletan". Laura Igantziaren amaren kasua da: "Artzain guztiek erraten zuten zer garrantzizkoa izan zen beraientzako nire ama. Dena ospatzen omen zen gurean, *rantxoan* eta amak prestatzen zuen janaria". Ana Olaiz bat dator: "Emakumeek, nahiz eta gutxitan aipatzen diren, lan izugarria egin zuten. Sukaldari eta zaindari onak ziren, jakina. Eta oso ausartak, hemen batzuk ahalordez ezkontzen ziren ("por poderes", ezkongaiak toki ezberdinetan daudenean) eta ondoren bakarrik joaten ziren". Lourdes Iraizotz: "Kasuren batean toki batean elkartzekoak ziren, hara iritsi eta senarraren hegazkina berandu iristen zelako haiek bakarrik gelditu behar ziren, itxaroten", Ana Olaiz: "60. hamarkadaz ari gara, imajinatu! Beste toki batzuetatik, Aezkoatik adibidez, neskame ere joaten ziren, baina gure zonaldean ez. Hemendik ezkondu ondoren joaten ohi ziren,

artzaina behin kokaturik zegoela, bere *rantxo*a zuenean". Baina, aipatu digutenez, hori ez da guztien kasua, Erripako Jovita Cueli, adibidez, ostatu batera lanera joan zen, han lanean ari zen senar artzainarekin ezkondu eta gero".

Memoria garrantzitsu hau hunkigarria izateaz gain, historia bitxiez beterik dago. Lourdes Iraizotz: "Niri gustatuko litzaidake, gutxienez argitalpen txiki bat egitea". Bitartean, Beruetekeo bestarako erakusketa bat prestatu zen, eta hori ere zabaldu nahiko lukete. Ana Olaiz: "Informazioa mundu guztiari iristea gustatuko litzaike, eta eskolan ere zerbait egitea gustatuko litzaike, umeei honen berri izan dezaten". Hala ere, honezkero egin dutenarekin oso pozik daude, Lourdes Iraizotz: "Guretzako plazerra izan da lan hau egitea. Oso esker onekoa. Jendeak nola hartu gaituen, nola kontatu dizkiguten beren historiak! Eta asko ikasi dugu". Ana Olaizek bat egiten du: "Bestarekin bakarrik asko egin da. Hemengo jendea garrantzitsua da guretzako eta honek balio izan badu artzainak errekonozitzeko, nahikoa da".

Lana ez da bukatu, baina, bilketa-ekin jarraitzen dute jendea enterratzen joaten den heinean artzain gehiago agertzen baitira. Ikusiko dugu noraino handitzen den.



Resu Goldaratz, Iraizotzkoa. Beuntzako Antonio Goldaratz ezkondu eta 1963an joan ziren. Han jostun aritu zen



Zer ematen digute zuhaitzek?

Losu Alfarok ingurumen hezitzaile etsaindarrak **Adarra jotzen. Basotik datorren uhina** ingurumen kolaborazioa egiten du Esan Erran irratiko Egun Ero saioan. Bertan kontatzen dituenak ekarriko ditugu hileroko Pulunpera. Ikasturteko lehenengo irratsaioan, zuhaitzen inguruan aritu da.

Zuhaitzak zer dira eta zer ematen digute? Hori izan da Alfarok bota duen galdera. Erantzunak asko izan daitezke, hemen dituzue batzuk: Fruituak, itzala, egurra, arnasa, izerdia, kautxoa, lur ongarri, abereen jana, soinua... Horiekin batera, Alfarok, beste batzuk ere nabarmendu ditu:

1. Lurzorua eusten dute

Lurzorua aipatzen denean, lurzorua bera eta bertan bizi den ekosistema aipatzen da: "Lurpean, ezkutuan, dagoen guztiari eusten diote. Ez da lurra edo lurzorua bera bakarrik, zuhaitzek hor bizirik dauden izaki guztiei eusten diete. Onddo eta ziza garaia hasi da eta horiek zuhaitzekin elkarlanean eta elkarri lagunduz bizi dira. Baina beste hainbeste bizidun daude hor. Gure irudimena mugatua izaten da, ikusten duguna soilik irudikatzen dugulako, baina lur azpian beste zuhaitz bat dago. Goiko aldean ekosistema bat ikus-

ten dugu, txorien kabiei eusten dieten adarretan, baina beheko aldean beste hainbeste ari da gertatzen. Biodibertsitatearen erdia edo hiru laurdena lur azpian dagoela esaten dute".

2. Oxigenoa

Datu bitxi batzuk eman dizkigu losu Alfarok, arnasarekin lotutakoak: "Arnasteko prozesuan oxigenoa ez da gas nagusia, nitrogenoa dela uste dut. Dena dela, oxigenoaz hitz egi-ten badugu, oso bitxia da zientzialariek ez dutela argi zeinek edo zerk ekoizten duen guk arnasten dugun oxigeno hori. Dakigunez landareek ekoizten dute oxigenoa, baina landare gehienak non daude? Itsasoan, algak, alegia, eta, gainera, gehienak mikroskopikoak dira. Beraz ozeanoek oxigeno pila ekoizten dute eta ez bakarrik oihanek. Honekin lotuta, zientzialari batzuen hipotesiaren arabera ez dugu gaur egun ekoizten

Bi zuhaitz mota

· Angioespermoak


Lorea dutenak eta fruitua ematen dutenak.

· Gimnoespermoak

Lorea biluzik izaten dutenak. Hau da, pinuak. Gimno: biluzik esan nahi du grekeraz.

ari den oxigenoa arnasten ari baizik eta garai historiko batean ekoiztu zena. Izan ere, lurrak 4.000 miloi bat urte ditu eta sortu ziren izaki bizidunetako batzuk itsasoan sortu ziren zianobakterioak ziren. Hauek mikroskopikoak ziren eta haien metabolismoa oxigenoa sortzen zuen, atmosfera osoa kutsatu zuten oxigenoarekin. Zientzialari askok diote garai hartan ekoizti zena ari garela arnasten oraindik ere".

Amaitzeko, bi ezaugarri nabarmendu nahi izan ditu Alfarok. Bere ustez, zuhaitzak itxaropena dira: "Arroka batean eroritako hazi batek gaitasuna du bizirik irauteko eta arroka apurtzeko. Hori zuhaitzen ingeniari-tza da, paisaia sortu eta eraldatzen dutelako. Landaredia guztia baturik egiten du hori, hau da, talde lan izugarriaren bidez", gizakiok horren isla izatearen itxaropena du. Bestetik, isiltasuna aipatu nahi izan du: "Lanean ari dira beti, baita neguan, lokarturik diruditenean ere".



▲ Lander Goñi Irigoienek argazkia

Elizondoko feriara txangoa

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, urriko txangoa Elizondoko ferietara egin genuen. Euripear egin eta postuetara iristea neketsua izan arren, egun atsegina pasa genuen.

Goizeko hamarretarako iritsi ginen feria lekura, euripear, aziendaren sarrera ikus ahal izateko. Eguraldiaren eraginik ez zen nabaritzen azienda kopuruan ez eta kalitatean ere, ederrak ageri baitziren bustiak egon arren. Neketsua izan genuen postuetara iristea eta karrika meharretik ibiltzea, jendea euritakoa zabalik baitzebilan. Ateriko tarteak ere izan genituen: hamarretakoa egiteko aukera nola taloak postuetan, ala pintxoak ostatueta.

Inguruko karriketan, salmenta postuei bisita egiteko aukera ere izan genuen.

Goiza Elizondon pasa ondoren, autobusez Etxalarko bentara abiatu ginen bazkaltzera, iazkoan oso gustura egon baikin. Aurtengoan ere ez zuten huts egin eta bikain bazkaldu genuen.

Betiko moduan bazkaltzeko tarte oso atsegina egin zitzaigun alde batetik Elizondoko karriken barna ibiltzean jasotako nekeak esertzea eskatzen zuelako eta "lehorrean" lasaia egoten delako.

Bazkal ondoren, batzuk musean eta besteak elkarriketan pasa genuen arratsalde atsegina, autobusa iritsi eta etxera itzuli ginen arte.

Azaroko txangoa Lodosa-Calahorra-Azagrara izanen da. Datorren alean kontatuko dizuegu gertatutakoa. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Goiz eurtsua izan genuen aziendak ikusteko



Menu bikaina, elkarrekin egoteaz gozatzeko



Batzuk musean eta besteak elkarriketa atseginetan



Utzamaldeko eskulangileen **5. AZOKA**



2024ko Abenduaren 7an

Goizeko 11tatik eguerdiko biak artio

Larraintzar (pilotalekua)




ANTOLATZAILEAK: AMETZA KULTUR ELKARTEA ETA ULTZAMALDEKO ESKULANGILEAK

LAGUNTZAILEA: ULTZAMAKO UDALA



Ultzamako Udalak indarkeria matxistaren aurkako egitaraua antolatu du



Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta Ultzamako Udalak egitarau berezia antolatu du. Azaroaren 25a astelehena denez, igandean, azaroaren 24an egingen dira ekimenak. 16:30ean, 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, genero-berdintasunaren eta giza eskubideen inguruko scape rooma edo ihes gela bat antolatu dute, euskaraz.

Jolas honetan, helburua denbora jakin batean gela bate-tik ateratzea da, eta horretarako zenbait kodigo eta asmakizun lortu behar dira. Larraintzarko Gizarte Etxean izanen da eta izena emateko epea azaroaren 19an amaituko da. Internet bidez edo 948 012 012 telefonora deituz apuntatu daiteke. 15 toki daude eta horiek betez gero itxaron zerrenda bat egingen da.

Hori dela eta, izena eman eta joateko aukerarik ez bada-ga abisatu beharko da beste norbaiti tokia egiteko. Aldi berean, azaroaren 24an baina 17:00etan *¿Pero por qué cantamos?* antzerki musikala eskainiko da, AO enpresak ekoitzia, Adriana Olmedo eta Nerea Bonito izanen dira antzezleak.

Urriaren 26an Aizarozko Ostatuaren bigarren urteurrena ospatu zuten

Bi urte bete dira Arantza Prietok, Olga Radak eta Xabi Goñik Aizarozko Ostatuaren kudeaketa hartu zutenetik. Urteurrena ospatzeko, egun osoko besta antolatu zuten urriaren 26an, larunbatarekin.

Herritarrekin batera ospatu nahi izan dituzte Aizarozko Ostatuaren kideek bi urteak, eta horretarako, goizetik gauerako egitaraua prestatu zuten: eguerdian poteo musikatua ostatuaren eta Gaztaburua dendaren artean, herri kirolak, karaokea, bokatada eta musika gauean.



Arantza, Olga eta Xabi, Aizarozko ostatuan ▲



Inskripzio paleohispaniko bat aurkitu da Lanzko meategian

Kultura Zuzendaritza Nagusiak iragarri duenez beren ikerketa-taldeek 2.000 urte inguruko inskripzio paleohispaniko bat aurkitu dute Lanzko meategiko Aierdi VIII haitzuloan. Irulegiko garai beretsukoa da eta horrelako beste inskripziorik ez dago iparralde-rago. Gainera, Iberiar Penintsula osoan meategi baten barruan aurkitu den bakarra da. Baina inskripzio hori ez da garrantzitsua salbuespen testuinguru arkeologikoarengatik bakarrik, baizik eta antzinako alfabetaztearen dokumentu berri bat ere badelako lurraldean. Erromanizazio eta latinizazio prozesua jada aurretatuta bazegoen ere, herri hizkuntzak erabiltzen eta idazten jarraitzen zutela adierazi lezake.


Inskripzioa haitzuloaren ahotik 61 metrora dago, eta 18 metroko sakoneran, 15 metroko pasabide bat gainditu ondoren. Sabaian dago, iparraldeko hormaren gainean, lurretik 84 zentimetrora. Buztinean inskribatuta identifikatu diren hiru ikurrek 23 zentimetroko luzera eta 13ko zabalera dute. Tresna zorrotz batekin egin ziren, baina punta kamutsa zuena, eta 4-6 mm-ko zabalera eta 2-9 mm-ko sakonera duten ildoek osatzen dute. Inskripzioari gainjarrita, gerora egindako 8 marka daude, baina ikerketak ezin izan du zehaztu zenbat denbora igaro den bi ekintzen artean. Edonola ere, inskripzioa osorik dagoela dirudi, panelaren beheko ezkerreko izkinan izan ezik.

"lkae" edo "igae"

Hiru zeinuak ikur-bilduma paleohispánico batekoak dira, eta "lkae" edo "igae" gisa transkriba daitezke. Testuaren laburtasunak eta konparaziorako euskarriak ez izateak zaila egiten du ziurtasunez zehaztea zein barriateari edo hizkuntzari dagokion. Hala ere, non aurkitu den kontuan hartuta, inskripzio baskonikoa izan liteke. Hipotesi hori Arnaud Oihenart XVII. mendeko euskal poetak erabiltzen duen "ik (h) ai" bezalako euskal hitzekin duen antzekotasunak bermatu lezake. Hitz horrek maldatsu esan nahi du eta lotura izan lezake idazkuna aurkitu den lekuari. Nolanahi ere, garai hartako hizkuntza-errealitateari buruzko ezagutza urriak hipotesi hori zuhurtziaz hartzera behartzen du.

Data ezin izan da zehaztu. Baina, inskripzioaren testuinguru arkeologikoa kontuan hartuta (laborategian karbono 14 bidez datatu da), 2.000 urte inguru izan ditzakeela ondoriozta daiteke. Hau da, erromatarrek meategia ustiatzen ari zirenekoa izan liteke, Irulegiko eskuaren garaikoa, gutxi gorabehera.

Aurkikuntzaren garrantzia ikusita eta arkeologia-multzaren kalteberatasunarengatik Kulturako Zuzendaritza Nagusiak – Vianako Printzea Erakundeak – Aierdi VIII kobazuloa ixteko erabakia hartu du. Meategirako sarbidea ikerketa-jarduerekin soilik lotutako erabilertara mugatu da.





Ainhoa Iraizoz eta Josetxo Barberena trontzan Nafarroako txapelkunak

Antsoainen izan zen finala, urriaren 12an, eta bost bikoteren artean lehenengoak izan ziren Ultzamarrak. Nafarroako trontza txapelketa mistoa absolutuaren finalaz ari gara eta Ainhoa Iraizozek eta Josetxo Barberenak osatutako bikote ultzamarra izan zen lehena lanak amaitzen, 4 minutu eta 33 segundutan. Bigarren bikoteak baino 15 segundo lehenago. Horrela, Nafarroako txapela eraman zuten Ultzamara.

Hauxe izan zen sailkapena:

1. Ainhoa Iraizotz eta Josetxo Barberena: 4:33'
2. E. Urrutia eta X. Urrutia 4:48:23
3. I. Biurrun eta D Saldias: 4:48:30
4. M. Eizmendi eta O. Aizkorbe 5:13
5. S. Goñi eta J. Goñi: 5:17





Minda berriz ere Ultzama ibaian

Bitan salatu du Ultzama Ibaia plataformak urrian Latasan (Odieta) dagoen neurgailuak kutsadura kantitate handia jaso duela. Plataformak abeltzainei egotzi die kutsadura eta minda soberakinak botatzen dituztela salatu du. Ultzama ibaiaren inguruan euren animaliak dituzten abeltzainek ximaurrei aurre egiten ez dietela eta soberakina uretara iristen dela salatzen ari da duela hogeitaz urte Ultzama Ibaia plataforma. Mindaren zenbait osagai minbizi mota batzuekin lotzen dela gogorarazi du Jose Iribarren Ultzama Ibaia plataformako kideak eta plataformaren izenean Olaben neurgailuak jartzeko eskera egin du, berriz ere, Odietatik Iruñera arte ikuilu gehiago daudelako eta isuriak izaten direlako plataformaren ustez.



028 telefonoak eta Kattalingune LGTBI+ Arreta Zerbitzuak informazioa, harrera eta laguntza soziala, psikologikoa, sexologikoa eta juridikoa eskaintzen diete LGTBI+ pertsonari, familiei eta profesionalari.





Hiru belaunaldi, ogiari lotuak

Anuen, Olagueko herri erdian, historia luzea duen okindegia dago martxan. Hirugarren belaunaldia da gaurkoa, Mirentxu eta Juan Martin Esain Ilarregi anai-arrebek daramate okindegia gaur egun. Eguerdi partean bildu gara Mirentxurekin okindegian bertan. Jendea joan-etorrian dabil elkarrizketan zehar, bada mugimendurik okindegia-denda honetan.

1911n jarri zuen martxan Olagueko okindegia gaurko kudeatzaileen aitonak, eta geroztik, egurrezko labea egunero-egunero martxan jartzen segitu dute hastapenetako haien ondorengoek. "Gure aitona hasi zen honetan, gero, nire aita osabarekin aritu zen, eta, orain, anaia eta biok segitzen dugu", azaldu du Mirentxu Esain Ilarregik. Aitaren anaiak Ameriketara joan ziren gerra garaian, baina ofizioarekin segitu zuten han: oki-

nak izan ziren denak. Eta, aitaren beste anaia batek ere, Iruñera joan eta okintza lana aukeratu zuen, Burlatan izan zen okin. "Okinen familia izan da gurea beti", aipatu du Esainek.

Belaunaldiz belaunaldi pasatu den jarduerak segur aski segidarik ez duela izanen dio, dena den. Izan ere, Esainen alabak eta ilobak bestelako ikasketak egin dituzte, eta ez dute familiako ogibideare-

kin jarraitzeko asmo handiegirik. "Oraindik jubilatzeke urte batzuk gelditzen zaizkigu, beraz, ikusiko dugu, baina ez dirudi segidarik izan-en dugunik", adierazi du penaz.

Herriari eta inguruei zerbitzu

Herritarren partetik erantzun oso ona jaso dute beti okindegian, eta, ogiaz gain, bestelako produktuak ere saltzen dituzte Olagueko okindegia-dendan. "Oinarritzko gauzak dira, batez ere, erromesengan pentsatuta saltzen ditugunak. Donejakue bideko etapa bat hemen amaitzen da, eta, askotan, arratsalde, berandu iristen dira", dio.

Olaguen ez ezik, inguruko herrietan ere egiten dute ogi-banaketak okinek: Olague, Aritzu, Lantz, Arraizko Bentak, Ostitz, Enderitz, Olabe, Burutain, Etsain, Etulain, Leazkue eta Egozkue. Hori da egunero-egunero Mirentxuk furgonetaekin egiten duen ibilbidea. "Bailara desberdinak ukitzen ditugu, azkenean. Goizeko 8:00etan hasten naiz banaketarekin, eta eguerdiko 14:00ak aldean amaitzen dut", gehitu du. Anaia aritzen da batik bat ogia egiten, eta bera, banaketaren alor horretaz arduratzen da gehiago.

Urte guzti hauetan, aldaketa nabarmen bat sumatzen du Esainek, bezeroekin duen harremanari lotuta. "Lehen, aitarekin joaten nintzenezan banaketa egitera, jendea-



Mirentxu Esain Ilarregi, Olagueko okindegia atarian



rekin tratua oso desberdina zen. Askotan, sukalderaino sartzen ginen ogiarekin, eta etxeko amonarekin hizketan aritzen ginen, hurrengo egunean medikamenduak eramateko eskatzen ziguten, kafea ateratzen...". Gaur egun, berriz, zuzeneko harreman hori guztiz galduta dagoela dio, eta faltan sumatzen du lehengo bizimodu hori. "Orain, hilabete osoan egunero ogia uzten dut etxe askotan, baina ez ditut ezagutu ere egiten. Gero, bizum bidez egiten didate ordainketa, eta listo. Zuzeneko harreman horiek asko sumatzen ditut faltan", azaldu du.

Egurrezko labea eta ama orea

Anaiak aitarengandik ikasi zuen ogia egiten, eta betiko moduan egiten segitzen duela nabarmendu du Esainek. "Bere garaian, obra egin genuenean, labe elektrikoa jartzeko proposamena egin ziguten, baina ez genuen nahi izan", dio. Egurrezko labearekin egiten dute ogia oraindik, nahiz eta garai bateko egurrezko labearekin alderatuta, teknologiak lanak aurreztu dizkien. "Lehen, banaka-banaka sartu beharra ziren ogiak labean, orain, zortzinaka sar daitezke, zinta batean", gehitu du.

Legamiari dagokionez, ama orea erabiltzen dute Olagueko okindegian, hain zuzen, haien amarengandik jasotako ama orea. "Aspalditik dator gaur erabiltzen dugun ama orea. Garai batean, gure amak esaten zuen 'legamia egitera' zihoala, baina, benetan, ama oreaz ari zen. Aita lanean hasi baino zenbait ordu lehenago jaisten zen ama, ama orea egitera", dio. Ogia egiteko prozesua ere, ez omen da gehiegi aldatu geroztik hona: oratzea edo amasatzea da lehen lana; gero, bolaztatzea;

segidan, estiratzea; ondoren, fermentatze-gunean denbora batez uzten da; eta, handik atera eta labera doa. "Anaia goizeko 3:30etan jaikitzen da lanean hasteko, eta, ni, 6:00ak aldean etortzen naiz", azaldu du.

Lan lotua

Lan zaila edo gogorra baino, lan lotua eta neketsua dela dio Anueko okinak. Izan ere, urte osoan bi jai-egun besterik ez dituzte izaten, eta, oporrak ere, gutxi. "Ez da lan oso fisikoa, baina neketsua da, egunero-egunero ari beharra duzulako. Lehen, ez nuen oporrik hartzen, baina lehenengoz hartu nituenean... hura deskantsual!".

Ogia ez ezik, magdalenak, esne-opilak, txantxigorria, te-pastak eta pizza oinarriak ere egiten dituzte Olagueko okindegian. Garai batean, arbendolazko pastak ere egiten omen zituzten. "Saiatzen gara, ahal den neurrian, berritzen", dio Esainek.

Gurasoen eta aitona-amonen lanari erabat eskertua azaldu da Mirentxu Esain. "Haiek hasitakoari segida bat ematea izan da gure lana, eta errespetuagatik, haiek egiten zuten modu berean segitzen dugu lanean", dio. Ama abuztuan zendu zen, eta Pulunpeko elkarrizketa aprobe txatu nahi izan dute omenaldi txiki bat egiteko. Amari, gurasoei, eta aurreko belaunaldiei. Beheko argazkian, gurasoak.

Eskaintza:

Ogi mota desberdinak, magdalenak, esne-opilak, txantxigorria, te-pastak eta pizza oinarriak

Ordutegia:

Goizeko 6:30etik eguerdiko 14:30era, eta arratsaldetan, 19:00etatik 20:00etara

Kontaktua:

620 596 119



▲ Teodoro Esan eta Milagros Ilarregi, gurasoek, lan handia egin zuten okindegia aurrera ateratzeko

Ihabengo latsarria zaharberritu dute lan babestuko langileek

Urtero, egiten dituzten hainbat lanen artean, bereziagoak izaten diren batzuk aukeratzen dira. Langileek ikasteko monitoreak lagunduta egiten dituzten lanak izaten dira, kontzejuen eta mankomunitatearen artean hautatuak. Aurten, ikusgarrienetako bat izan da Ihabengo latsarriarena.

Lan babestuko bost langile aritu dira uda honetan, hiru emakumezko eta bi gizonezko. Sasiak garbitu eta ohikoagoak diren dozenaka lan izaten dituzte. Baina udan, tarteka, monitorearekin ere aritzen dira. Bereziagoak edo teknikoagoak diren lan horietan laguntzeko eta irakasteko. Aurten, harria lantzen aritu dira, batez ere: aipatu Ihabengo latsarrian baina baita Zenozko iturriaren zaharberritze lanetan ere. Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko gizarte hezi-

tzaile Miren Uhartek kontatu digu: "Harria atera, garbitu eta konpondu dute. Lan polita eta luzea izan da eta garbitegiak oso itxura polita hartu du. Kanpotik ez da ikusten, baina atetxo txiki bat dago eta, gainera, herritarrek ere lan handia egin zuten auzolanean dena garbitzeko. Oso berezia da, badu patio edo atrio moduko bat eta bisitatzeko aukera baduzue hurbildu zaitezte, ezkutuan dagoen altxor bat delako. Iturria dago, eta ate bat du, baina nik uste irekia egon ohi dela eta lan ba-

“

**Miren Uharte,
Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitatea:**

**Ihabengo latsarria
ezkutuan dagoen
altxor bat da**

”



bestuko langileek oso txukun utzi dute". Harrizko lanen artean, Zenozten zaharberritu duten iturriak ere itxura ederra hartu du.

Bestetik, egurra ere landu dute, alde batetik, Itsason eta Arraratsen jarri dituzten bankuetan; eta, batez ere, Itsason jarritako hesiekin: "Itsason garbitegiaren gainean dagoen zubitxo txiki bat konpondu dute eta hesi berri bat jarri diote eta Itsasoko baselizan dagoen hesia ere konpondu dute. Langileen dako garrantzitsua izan da alde batetik harriarekin lan egiten ikasi dutelako: harria txukuntzen, zer harri erabili daitekeen eta zein ez ikusten; eta gero egurrarekin nola aritu ere ikasi dutelako: lixatu, bernizatu, produktuari nola eutsi eta hori guztia ere ikasi dute".

Helburu bikoitza

Izan ere Europar Batasunetik eta Nafarroako Gobernutik dirulaguntza

Ihabengo latsarria, zaharberritzea amaituta



jasotzen duen lan babestuko proiektuak helburu bikoitza du: Herrietan beharrezkoak diren lanak aurrera ateratzen dira eta lana sortzen da: "Herriei zuzendutako lan bat da, bertan dauden gauzak balorean jartzen dira eta txukuntzen dira; eta, aldi berean, langileek ere asko ikasten dute, tresna ezberdinak erabiltzen, nola funtzionatzen duten, ze arrisku egon daitekeen eta nola babestu behar diren, hori guztia ikasten dute". Mankomunitateak bilera egiten du urte hasieran kontzeju

eta udalekin eta hor aurreko urtea baloratzeaz gain, dituzten beharrak mahai gainean jartzen dira. Behar horietatik aukeratzen dira datoren urtean beteko diren lanak, horiek azertu ondoren. Miren Uharte: "Hautaketa bat egiten da: adibidez, aurreko urtean lanik izan ez duen toki bat. Lekuren batean zerbait egin bada, hurrengoan txanda-pasa egiten dugu. Bestetik lan motaren arabera: osorik egiten diren lanak izatea lehenesten dugu, hau da, hasi eta bukatzen diren horietakoak".

“

Miren Uharte:
Langileek harriarekin eta egurrarekin lan egiten ikasi dute

”



Zenozko iturria ▲



Itsasoko zubiaren hesi berria ▲

2024ko Zozketa mundiala



**CAJA RURAL
DE NAVARRA**
ACCIÓN SOCIAL



x3

Asteburuko bidaiak
2 lagunentzat



x10

Txerri gizen



x20

Bazkari edo afari bikoitz
(inguruko ostatuetan)



x10

Axuri eder



30 saskitto, 25 gazta, eta... beste anitz sari!

amezti.eus



10 urte eta gero, eskolako autobusa
Olanora dator berriro!



Idoia gure argazkilariari etxera etorri zaizio amiamokoak



Onddo Eguna



Onddo Eguna



Olagueko gaztetxoak besta ttikitan



Suarbeko pestak



Suarbeko pestak



Suarbeko pestak



Eritzegoitiko pestak



Eritzegoitiko pestak



Eritzegoitiko pestak



Basaburuko

Ahaztuak

“Aizarozko gudari baten istorioarekin egin nuen topo, eta ohartu nintzen, bailaran ez dela horretaz hitz egiten”

36ko altxamendu faxistan eta ondoko gerran Basaburuan izan ziren errepresaliatu eta zapalduen inguruko informazio bilketa lanean ari da herritar talde bat azken hilabeteotan. 'Basaburuko Ahaztuak' deitu diote proiektuari, eta, adierazi dutenez, informazio bilketarekin segitzeaz gain, errekonozimendurako ekintzak antolatzea ere bada haien asmoa. Jose Luis Estevez 'Gato'ekin bildu gara gaian gehiago sakontzeko.

Nondik nora sortu da gerra garaian Basaburuan egon ziren errepresaliatuen inguruko lanketa abiatzeko ideia?

Tira, urte asko atzera egin beharra dago gaurko lanketa honaino iristeko. El Salvadorren bizi izan nintzen ni garai batean, eta han, Pakito Arriaran internazionalistaren historia jasotzeko lanean aritu ginen, gerora liburu forma emanen geniona. Harra piztu zitzaidan orduan, eta, El Salvadorren hil ziren internazionalista gehiagoren historia bildu eta liburu birtual bat atera genuen. Baina, ohartu nintzen, hurbilagoan ere bazeudela ahaztuta gelditu ziren istorioak, eta, erdi kasualitatez, Aizarozko gudari baten istorioarekin egin nuen topo. Semeak instituturara-

ko memoriaren inguruan egin behar zuen lan bat tarteko, informazio gehiagoren bila hasi ginen...

Herriotan, asko isildu dira gerrari lotutako istorioak, ezta?

Bai, egia da bailaran ez dela ia hitz egiten gai hauei buruz, eta galdetu izan dudanetan ere, oso gauza gutxi kontatu dizkirate. Azkenean, beldur-raren ondorio da hori, errepresio latza egon baitzen inguruetan ere. Bestetik, aipatu beharra dago inguru hau nahiko eskuindarra eta kontserbadorea zela garai hartan, baina bazegoen beste kezka eta interesa zuen jendea ere, mundua eta gizartea ikusteko beste modu bat zuena. Basaburuan, adibidez, EAJren batzorde bat egon zen garai haietan.

Alderdi eskuindarra zen, baina alde nazionalista ere bazuen, eta horietako askok ihes egin behar izan zuen, edo, dokumentuetan ikusi dudanez, apaizari eskatzen zioten informea egiteko, katolikoak zirela eta mezetara joaten zirela adieraziz.

Zer kasu egon ziren Basaburuko errepresaliatuen artean?

Atxiloketak eta kartzelaratzak, espediente irekierak, multak eta pertsekuzio ekonomikoa... hainbat kasu topatu ditugu. Errepresaliatu batzuk hemengoak ziren, eta beste zenbaiten kasuan, beste nonbaiten jaiok izanda ere, hemen, Basaburuan bizi ziren errepresioa jasan zuten garai haietan. Egia da, errepresaliatuetako asko bailaratik atera zirela, kanpora joan behar izan zuten gerora lanera. Esanen nuke horiek izan zirela errepresio handiena jasan zutenak.

Nola ari zarete informazioa biltzen, ze iturritara jo duzue?

Modu amateurrean ari gara lanean, momentu honetan, Basaburuko lau lagun inguruko taldea bildu gara. Interneten begiratu dugu batez ere: bertan kuxkuxeatzen, zenbait izen topatu ditugu, eta asko jo dugu eskeletara ere. Abizenen bidez, errepresaliatuen familia izan daitezkeenak ateratzen dituzu... bai, batik bat internetera jo dugu, baina baita liburuetara ere. Elkarrizketa-



Jose Luis Estevez 'Gato' da informazio bilketa lanean ari den kideetako bat



Javier Iturbide medikua, argazkiaren erdian, 1949an Iruñean ▲

rik ia ez dugu egin orain arte, baina hemendik aurrera egingen ditugu, zenbait errepresaliaturen familiak topatu baititugu honezkero. Haiengana joko dugu orain informazio gehiago jasotzeko. Azkenean, zenbat eta gehiago arakatu, orduan eta historia gehiagorekin egiten duzu topo.

Pertsona asko bildu dituzue orain arteko lanketan?

Momentu honetan 32 kasu ditugu jasota, guztiak Basaburukoak edo Basaburuan bizi zirenak.

Eta, aurrera begira, ze pauso emanen dituzue?

Hasteko, bilera ireki bat egin genuen herritarrekin, orain arte bildutakoa haiekin partekatzeko eta informazio gehiago jasotzeko. Lanketa guzti honen ideia da kasu horiek guztiak ahanzturan galtzen ez uztea, errepresaliatua izan zen jende guzti horri errekonozimendu bat egitea. Uste dugu garrantzitsua dela historia hori berreskuratzea eta ezagutzea ematea, pertsona haiek gizarte hobe baten alde egin zuten esfortzuari eta borrokari aitortza egitea. Oraindik ez dakigu ze formatan egingen dugun informazio zabaltze eta errekonozimendu

hori, baina, momentuz, lehen pausoa Basaburuko Udalean mozio bat sartzea izan da. Izan ere, bailaran baditugu frankismoko hainbat simbolo, esaterako, Orokietan laureada bat dago 1955tik, Gurutze Gorriaren monumentuan. Nafarroako Gobernuarekin eta Memoriaren Institutuarekin ere harremanetan gaude, eta Udalarari ikur horiek kentzeko eskaera ere egin diogu honezkero.

Basaburuaz aritu gara orain arte, baina, inguruko beste udalerrietan ere egonen dira horrelako kasuak, ezta?

Bai, Basaburura mugatu gara, baina egia da bidean inguruko beste udalerrietako kasuekin ere egin dugula topo. Faxismoaren aurka borroka gogor egin zuten zenbait kasu topatu ditugu, adibidez, Ultzaman, Imotzen, Anuen... Ilarregiko Pascual Cia, adibidez, erresistentzian aritu zen borrokan, Britainiako babes sareekin batera, Alemaniako kontzentrazio esparru batean egon zen... eta, Olaguen ere badira kasu franko. Izan ere, ohiko pasabidea zen Olaguekoa, eta errepresaliatu asko egon ziren han. Polita litzateke ondoko beste bailaretan ere taldetxo txikiak osatzeko lanketa hau egiteko, ni laguntza emateko prest nago, eta honezkero zenbait kasu jasoak ditugu.



Jasotako zenbait kasu

- **Miguel Arano:** Aizarozko herritarra zen, EAJren Itxarkundia batailoian gudari izan zen, eta 38 urterekin zendu zen, 1936ko abenduan, Zornotzako batailan borrokan. Gernikako Zallo hilerrian lurperatua izan zen, beste gudari gehiagorekin batera.

- **Javier Iturbide Amezketa,** bailarako medikua: atxilotua eta kartzelaratua izan zen, eta errepresio latza jasan zuen, haren semeak bezala. Oso maitea zen medikua herrian, Jauntsaratsen, eta seme-alaba guztiak bertan jaio ziren. Errepublikar eta ezkertiar familia batekoa zen. Errepresioagatik, Venezuelara exiliatu behar izan zuen familiak gerra bukatutakoan. Semea, berriz, Mexikon exiliatu zen, baina hiltzen zenean, Jauntsaratsen lurperatzea eskatu zuen. Jauntsarasko haritzetako batean bota omen zituzten bere errautsak.

- **Nemesio Delgado,** Igoako maisua. Burgoskoa zen jaiotzez, baina Igoan zuen plaza, eta bikotekidea ere bertakoa zuen. Hainbat aldiz atxilotu zuten, eta, kasuren batean, herriko jendea izan zen atxilotu eraman zuttenak. Bartzelonako espetxean egon zen, Portboutik ihes egin zuen eta handik Kataluniara bueltatu zen. Han plaza bat lortu eta lanean segitu zuen, baina, gerora, faxismoaren kontrako borrokara batu zen. 1971n zendu zen, Tolosan.



Berueteko

lapurrak (VII)

Ilarregiarra hil zuten

Aurreko Pulunpen kontatu genuen nola, 1925eko ilbeltzaren 20an, Madrilén izan zen epaiketan, heriotza zigorra eman zitzaizen Bernardo, Juan Martin eta Jose Goñi Lazkano anaiei, otsailaren bigarrenean betetzeko asmotan.

Heriotza zigorraren kontra, indultuaren atzetik

(Aurreko Pulunpen indultuaz idatzi genuen lehen zatia. Hau da segida)

Eginak egin, eta egin zituen zuzemen guziak alferrik egin ote zituen susmoa harturik, atsekabeturik iritsi zen Leandro Nagore alkatea Iruñera

31an, baina berriz ere indultuaren aldeko indarrak bizkortzen saiatu zen, Don Mateo Mujika Urrestarazu obispoa ere, lan horretan sarraziz.

Egunkariak ere heriotza zigorraren kontra azaldu ziren; gehienik saiatu zena La Voz de Navarra izan

zen, PNVren aldeko egunkaria.

Otsailaren 1ean La Voz de Navarra idatzi zuen "Ante el patíbulo" editorial antzekoa. Mundu guzia deitzen zuen azken eginahala egitera. Zineek, Kirol klubek... irabaziak bazter utziz, hertsu behar dutela azaltzen du, baina azken ahalegin bat eskatzen die pezeta bat duten guziei: telegrama bidaltzeko Erregeri indultua erregutuz. Eta errezoak, bai Martin Aizkorberen arimaren alde eta baita goñitarren alde ere! Batez ere goñitarren bizitza salbatzearen alde.

Eta bukaera aldera edo, honako esaldi hau jartzen du: **Gorrota dezagun delitua, baina erruki gaizkilea.**

Ez ote zen idatzi honetan tarteko ibili Basaburuko Sekretarioa zen Don Timoteo Lazkotz? Esaldi bera sartu baitzuen honek, askoz ere lehenago, 1924ko irailaren 21ean, berak igorri zuen kronikan La Voz de Navarra egunkarira! Balientea izan zen gero Timoteo hori idazterakoan, Martin Aizkorbe, hildakoa, bilatu berri-berritan!

Goñitarren ama, Francisca Lazkano, bere aldetik, alabaren laguntzaz, Martin Aizkorberen andregaia hain zuen, Gipuzkoako Gobernadore Zibilarengana iritsi zen, adiskide bat tarteko. Eta ama gaixoak, euskaldun hutsa zenak, alabaren bitartez errukia eskatu zuen. Eta Gobernadore zibilak



Don Mateo Mujika, Iruñeko Obispoa, gerora izugarrizko fama bilduko zuena: Errepublikako garaian ezkerrek desterrura bidali zuten, 1931ko maiatzetan. 1933an itzultzea utzi zioten. Eta gero, frankistek ere gauza bera egin zuten: 1936k urrian bota zuten. 1947an itzuliko zen, xahartua ordurako



beren aurrean telegrama bana bidali zien Diktadoreari eta Erregeri. (Esan behar da, ama eta alaba, Gipuzkoan zirela, Hernanin, Berueteetik bertara ihesi egin ondoren. Eta Gobernu Zibiletik esperantzaz beterik itzuli ziren Hernanira. Bernardoren andrea eta umea, berriz, Donostian bizi omen ziren)

Gobernadore Zibilak ez eze, Diputazioko buruak eta Donostiako alkateak ere, beren aldetik telegramak bidali zituzten eta ahal zuten guzia egin zuten.

Den-dena alferrik izan zen! Zer zitzaien Espainiako Diktadoreari eta Erregeri hiru euskaldunen bizitza? Gehiago, jakinik, hiru euskaldun ikazkin besterik ez zirela. Jendaje ederren erabakipenean zeukaten esperantza jarria! Bai alajainkoa!

Eta bukatzeko eta egia osoa azal dadin, Berueteiko jendea ez zen indultuaren oso aldekoa. Hara, La

Constancia, Donostiako egunkariak zer zekarren: "...un telegrama que, según la voz publica, dirigieron los vecinos de Beruete al presidente del Directorio pidiéndole que de ninguna manera se concediera el indulto"

Hemen ageri da halako duda bat "según la voz pública" horrekin, baina dudak kendu zizkidan nik elkarriketatu nuen lekuko seguru batek, honako hau esan baitzidan:

Hiru aldis eskrittu men'tziten herri-re indulto eskatzeko eta eskatzeko; eta herritik hiru aldis ezezkoa eman.

Beste lekuko batzuk gauza bere-tsua kontatu didate, baina ez hain xehe eta zorrotz.

Eta niri ez zait batere harrigarria iduritzen, beruetarrek nozitu baitzituzten goñitarrek egin txarke-ria guziak: lapurretak, haserreak, herrian nagusiturik ibilitako ga-

raia, Korpus eguneko prozesioko tiroak... Ez, ez zen erraza kontu horiek guziak batean hartuta indultua eskatzea. Gehiago oraindik herrian barratu zen kontua gogoan izanik: **Barrantx hil biar zutela eta Navarro mingaño moztu, esan ben'tziten goñitarrek.** Hori nik bildua (Nolanahi gisa, kartzelan bizi ziren artean, izan zituzten gorabeherak kontutan harturik, ez dirudi mehatxu hori pentsatzeko ere astirik izan zutenik, heriotza zigorraren esperoan larri baino larriago egon baitziren)


EXEKUZIO AURREKOAK

Otsailaren lehenean, igandez, eguerdian hiru kondenatuak Kaperara eraman zituzten, eta Kartzelako kaperara hiru zatitan banatu zuten, bakoitzarendako bana, elkarrengandik bereiz izateko. Kaperan egin behar zuten denbora guzia apez banarekin egon ziren, **Bernardo Alejo Eleta** kanonigoarekin, **Juan Martin** Marcelo Zelaieta San Lorentzo Elizako Parroko famatuarekin eta Kartzelako kapit-laua, Alejandro Maisterrena, **Jose-rekin.**

Ilunabarrean, Nafarroako obispo euskalduna zen Mateo Mujika Urrestarazuren errukizko bisita izan zuten. Eta konfesioa egiteko, karmelita euskaldun bat izan zuten, Aita Juan Tomas.

Bezperan, larunbatean, etorria zen Burgosko borrarroa, Gregorio Mayoral, eta ordezkoa berriz, Madril-dik. Kartzelako logela batean lasai ederrean egin omen zuten lo, goizean iratzarri zituzten artio.

Borreroen iristeak ere kontuak inarrosi zituen eta indultuaren aldeko telegramak Errege eta Diktadoreari ugaritu ziren, exekuzio bezperan. Dena alperrik!



▲ Marcelo Celayeta, San Lorentzoko parrokoa, Juan Martin zaindu zuena azkeneko orduetan. Apez hau lapurrak urkatu eta laster samar hilen zen, 1931an



Berueteko

lapurrak (VII)

Bernardok gauzak xuxen jarri nahi

Bernardok judiziokoan bere andrearen onestasuna dudan jarri zuen, espero zuen haurra ez ote zen berea, Martin Aizkorberena ote zen edo. Bizia salbatzeko esandakoa ez da batere harrigarria! Bizia salbatzeko sospetxatxo bat zabal-tzea, nork ez luke eginen?

Orain, hil bezperan, bere gogoz, apezen eraginez, edo Obispoa beraren aholkuz, ez dakigu, baina kontuak xuxen jarri nahi izan zituen. Aurretik ere azaldu zuen zerbait horrelako, baina oraingoan, zorrotz eta denen aurrean baietsi zuen Judiziokoan andreari buruz esan guzia gezur hutsa zela, bizia salbatzeko esan zuela esan zuena. Eta bere andre Micaela Garrori barkazioa eskatzen ziola.



Txurdan

Hurrengo Pulunpen segituko dugu kontakizunarekin. Hurrengoan exekuzioa.

Hemengo bi lekuko izan ziren kartzelan guardia egiten

Kartzelako guardia egiteko ere, aldaketa izan zen, militarrek ekarri baitzituzten, 27 soldadu, bi kabu, sarjentu bat eta ofizial bat. Izugarrizko indar erakustaldia!

Berueteko **Sagastiko** Juan Otxotorena Iriarte eta Etxarriko **Orexeneko** Calixto Olaskoaga soldadu horietan tokatu eta ikusiko zuten Bernardo urkatu eta berehala nola jarri zuten bandera beltza kartzelan. Juan zena, adinez lapurren adintsukoa zen. Jose, gazteena, urte bat zen gazteago eta beste biak zaharxeagoak.

Sagasti zenak Latasan ikusi zituen azkenekoz, trenean, atxilo zeramatzatenean eta urkatze-ko eguna etorri eta kartzelan guardi egitea tokatu!!!!

Hiztegia

Zuzemenak: gestiones

Gaizkilea: malechor

Igorri/bidali

Zer zitzaien=Zer inporta zitzaien. Aurreneko esaldia jatorragoa da.

Jendaje=Jendilaje=Jendaila: gentuza

Erabakipean: erabakiaren azpian

Elkarrizketatu: entrevistar

Lekukoa: testigo

Nozitu: sufrir (Hemen hitz arrunta da edo izan da)

Mehatxua: amenaza

Kapera: capilla

Borreroa: verdugo

Inarrosi=astindu: agitar, estre-mecer (Nahiko hitz ezaguna dugu hemen)

Onestasuna: honradez, honestidad

Aholkua: consejo

Baietsi: confirmar, dar por cierto



Amabitik ateratako fotografia. Hementxetik ikusi zuen azkeneko aldiz Bernardok herria eta jaiotetxea, guardia zibilek Lekunberrira zeramatenean



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA

Eta gazteak beren ikasketetan?

Ez dugu esanen umeak euskaraz haztea erraza denik. Hala esanen bagenio baten bati, haserretuko litzateke eta. Hala esan izan baitit guraso batek baino gehiagok, **zaila dela**, eta besteren batek, gehiago oraindik, **ezinezkoa dela**. Eta ez dira kasu bakarrak, euskaraz jakin eta umeak erdaraz hazi. Hori dugu ikusten frankotan.

Horrelakoak bota dizkidaten euskaldunei, zaila dela edo ezinezkoa dela didaten horiei, Francisco Girón Ezpeletak idatzi zuena dakarkiet:

"Cuando llegué a Madrid no entendía una sola palabra de castellano, y no perdono a mi madre que me dejase olvidar el vascuence, mi lengua nativa, que *muy poco me hubiera costado conservar* sabiéndolo muy bien mi madre y toda mi familia materna, pero *el deseo de que yo hablase pronto y bien el castellano* la llevó a este descuido, si así puede llamarse, que toda mi vida he sentido"

Badakizue nor zen Girón Ezpeleta hau? Guardia Civilen sortzailea

1844an; aita zuen espainola eta ama, berriz, Nafarroako euskalduna. Umeari euskaraz erakutsi zioten Nafarroan umezaroan. Gero, atzendu. Amaren erruz, berak dioenez.

Aristokrata, bai aitaren aldetik eta bai amaren aldetik, jenerala, ministro izana, markesa, dukea... Ez, ez zen txori-kaka espainol hau. Eta amak euskaraz jakinez gero, gauza erraza iduritzen zitzaion euskarari eustea Madrilen Girón Ezpeletari.

Asko kosta gabe euskarari eutsi dakioke, hori dio espainol aristokrata honek. Lehenbiziko ikasi eta gero eutsi, hori dio markes honek. Gure umeak euskaraz hazteko ikasbidea ematen digu.

Beste kontu bat ere aipatzen du Girón Ezpeleta espainol ahaltsuak: erdaraz ongi eta behar baino lehen ikastea. Eta nik diot, lehenik euskara eta gero euskara, 10-11 urteetarik gora ikasiko dituzte beste hizkuntzak. Lehenik gure hizkuntza nazionala.

Hizkuntza behar bezala ikasten ez badute, beren ikasketa guzietan maingu, baldar eta ezinean ibiliko dira

Iruñeko familia euskaldun gehienetan ama edo aita erdalduna da eta umei euskaraz erakutsi izan diete. Eta gurean, errazago behar lukeenean, ezinean?

Gure umeak zozoagoak al dira auzokoak baino? Iruñekoak euskaraz ikasteko gauza direnean gure etxeko haurrak ezgauza al dira? Larria litzateke gero etxeko haurrak zozoago balira bezala tratatzea eta auzokoak erneagotzat jotzea. Larria benetan!

Hemen zerbaitek huts egiten du eta zerbaitek huts egiten duenean lehenbailehen zuzendu behar izaten da. Ez dago beste erremediorik, **jakirik gainera hizkuntza behar bezala ikasten ez badute, beren ikasketa guzietan maingu, baldar eta ezinean ibiliko direla**.

Kontu hauek oso-oso larriak dira eta ez du aristokrata, jakintsu eta jenerala izan beharrik entendantzeko.

Ardo ona ardo ona da, eta ozpin-dua ozpindua. Prezioak berak aski garbi uzten du.



Txurdan

Hiztegia

Umezaroa: infancía, niñez

Txori kaka: balio gutxiko gauza edo pertsona.

Ezgauza: incapaz.



Francisco J. Girón Ezpeleta. Etsai amorratuena izan edo adiskide amultsuena, kritika eta kontseilua beti onartu behar da. Uste ez duzunak erakutsiko dizu.



AZAROAREN 2tik ABENDUAREN 8ra

50 ekitaldi baino gehiago, Nafarroako txoko guztietan, haur, gaztetxo eta familientzat, **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzeko.

Azaroa

27 Jolastokia

JAUNSARATS

Apeztegiberrin, 18:00etan.

Abendua

5 Baso zaindaria

RIPA / ERRIPA

Kontzejuaren etxean, 19:00etan.



Ultzamako kuadrilen egunetik, herri kirol taldera

Duela bi urte hasi ziren Ultzamako zenbait gazte kuadrilen arteko herri kirolak antolatzeke asmoz elkartzen. Ideiak arrakasta izan zuen, bai parte-hartzaile bai ikusle aldetik. Herri kirolestarako zaletasunari bultzada nabarmena eman dio ekimenak, eta, orain, Ultzamako Herri Kirol Taldea sortu berri dute. Maria Domeño kidearekin elkartu gara. Arpanarekin aritzen da bera zenbait probetan.

Nondik sortu zen Ultzamako herri kirol taldea osatzeko ideia?

Berez, Ultzamako kuadrilen egunetik piztu zen hau dena, ultzamar batzuk hasi ziren kontua mugitzen. Bestaz aparte, gazteok elkartzeko beste modu bat bilatu nahi genuen, eta ideia polita izan zen kuadrilen eguna antolatzearena. Horrela hasi ginen herri kirolean. Gure kuadrilak izena eman zuen lehen edizioan, eta ni eta beste kide bat, beste neska bat, arpanarekin hasi ginen. Hain ongi atera zen kuadrilen eguna eta herri kirolen proba, hain pozik gelditu zen jendea, pentsatu zutela ongi legokeela herri kiroleko taldea sortzea.

Zenbat kide zarete gaur egun taldean?

Talde irekia da, ez da guztiz finkoa, eta egunaren arabera aldatzen doa kopurua. Proba baterako

proposamena egiten digutenean, whatsapp taldean botatzen da, eta egun horretarako taldea osatzen da. Whatsapp talde horretan hogeit bat lagun izanen gara. Horietako zenbait astero elkartzen dira entrenatzeko, badute maiztasun finkoa, baina beste askoren kasuan, nahiko malgua da, eta norberaren ahalaren arabera moldatzen gara.

Erakustaldietan zenbat lagun izaten dira, gutxi gorabehera?

Hori ere aldakorra da, baina 10-11 inguru horretan ibiltzen gara. Saiatzen gara gaudenon artean bi talde ateratzen. Arpana egin behar bada, bi eta bi behar dira, eta saiatzen gara horrelakoetan mistoan egiten. Hemen badira Eltsoko Barberenatarrak, maila onean ari direnak, eta askotan egiten dute haiek arpana proba. Ainhoa eta Maria Iraizoz ere aritzen dira...

“ Talde nahiko malgua da, norbere beharren arabera moldatzen gara ”

Zein profiletako jendea zaudete taldean?

Denetik gaude, eta, egia erran, hori da nire ustez gauzarik politena. Izan ere, bailarako jende asko ezagutzen ari naiz, beti hemen bizi izan direnak baina orain arte harremanik ez nuenak. Lizaso, Eltsu, Iraizotz... herri askotako jendea elkartu gara, eta adinaren aldetik ere, denetik dago. Gaztetxoek hogen urteren inguruan ibiliko dira, eta zaharrenak, berriz, 35-40 urteren bueltan. Beraz, anitza da zentzu horretan. Eta, neska eta mutilen aldetik, segur aski mutilak gehixeago izanen dira, baina neska franko ere bagara, eta esanen nuke nahiko orekatua dagoela.

Eta, ze kirol egiten dituzue? Bakoitzak kirol bakarra egiten du, edo txandakatuz zoazte?

Normalean, bakoitzak bere kirol finkoa du: badira pare bat lasterka aritzen direnak, beste pare bat zakuarekin, beste batzuk arpanan, besteak morkotsekin... bai, gutxi gorabehera pertsona berak aritzen dira proba bakoitzean. Ingu-



Ultzamako kuadrilen egunetik piztu zitzaion
Maria Domeñori herri kirolestarako grina



Ultzamako Herri Kirol taldea, Orkoiengo erakustaldian. Goian: Maria Domeño, Orein Mondragon, Jon Biurraena, Aritz Legarrea, Iñaki Ariztegi, Oskar Ilarregi. Behean: Maika Iraizoz, Julen Ancizu, Aritz Olague, Patri Erviti, Asier Ezkurra eta Oihane Garcia-Falces

Erakustaldiak, eskualdean eta eskualdetik kanpo

Herri kirol taldea martxan jarri denetik, Nafarroako hainbat txokotan izan dira Ultzamako kirolariak ikuskizunak ematen. Herriz Herri txapelketan ere parte hartu zuten, Beran, Antsoainen eta Burladan izan ziren. Baina, txapelketetatik harago, besta giroko erakustaldiak ere egin dituzte, esate baterako, Larraintzarko eta Iraizozko bestetan.

Orkoieneren ere izan ziren due-la gutxi erakustaldia ematen, bertan parte hartu zuen Domeñok ere. Eta, aurrerago ere etorriko dira ikuskizun gehiago: hurrengoa, Lizasoko bestetan izanen da.

dea ere egiten dugu, eta aizkora ere bai. Tira, aizkora edo motozerra, egunaren arabera.

Entrenatzeko, bakoitzak bere aldetik ere egiten du orduan?

Finkoenak diren pertsonak astero egiten dituzte entrenamenduak elkarrekin, baina, gure kasuan, Patri nire bikotea eta biok bi baztandarrekin aritzen gara entrenatzen, gure kontura. Anizen hasi ginen entrenatzen, eta han segitzen dugu. Pentsatu genuen, hasieran, oso zaila ez zen kirol bat nahi genuela, akatsak gehiegi ikusiko

“Kirola taldean egiteak badu xarma berezia, giro polita sortzen da”

ez ziren bat... arpana egokia izan zitekeela iruditu zitzaigun, baina tira, azkenean ez da hain erraza! Hasi ginen, eta pentsatu genuen: "ostras, honek badu bere konplikazioa!".

Esanen zenuke herri kirolen 'berpiztea' gertatzen ari dela, no-labait? Geroz eta gazte gehiago animatzen direla?

Posible da, bai. Azkenean, gimnasioak badu bere gauza hori, baina taldean aritzea bestelakoa da, beste giro bat sortzen da. Gainera, herri kirolak gure sustraiekin ere lotura dute, hemengo kirolak dira, eta horrek ere uste dut baduela bere erakarpena.

Elkarrizketa irakurtzean norbaiti gogoa pizten bazaio, zer esanen zenioke?

Taldea oso irekita dagoela, parte-hartu nahiko lukeen edonor ongi etorria izanen dela. Nahikoa da gurekin harremanetan jartzea, probak nola diren erakutsiko genieke, entrenamendu egunak aprobetxatu daitezke horretarako. Oso lagunarteko giroa dugu, beraz, gonbidatuko nuke jendea parte hartzera.



Maria Domeño eta Patri Erviti, arpana proban



Webguneko ametzak ez du hostorik galtzen udazkenean

Hemen da udazkena berriz, euria, eguraldi grisa eta hotza bueltan dira. Garai ezin hobea da hau interneteko gure txokoa bisitatzeko eta bertan zintzilikatzen ditugun edukiak patxadaz ikusi eta entzuteko. Irratiko elkarrietzeta eta kolaborazioak, Broma Gutxi, Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa irratsaioak, agenda, albisteak... eta askoz gehiago!

Gai desberdinak jorratu ditugu urrian zehar Esan Erran irrati-ko magazinean. Entzungai, du-zue, adibidez, *Moio* liburuari bu-ruz Kattalin Miner idazlearekin izan genuen elkarrietzeta, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Mi-ren Uhartek lan babestuko azken proiektuak azaldu zizkiguneko, edo Laura Igantzi Euskal Artzai-nak Ameriketako elkarrietzeta kideak Berueten egindako festaz kontatu-takoak.

Irratiko elkarrietzetez gain, hilabete honetan albiste izarrik egon bada amezti.eus agerkarian, Lanzko meategiko aurkikuntzarena izan da, zalantzarik gabe: Euskal Herri-ko komunikabide guztietan agertu da inksripzio paleohispanikoaren albiste, eta, noski, gu ere ez gara gutxiago izan. Gainera, esan liteke albiste oraindik albiste ez zenean, primizian landu genuela gaia 242. Pulunpe aldizkarian.

Lanzko meategia
erreportajea



Irratiko kolaborazio berriak eta zaharrak

Erasoko Alazne Fernandez de Mu-niainen eskutik, kolaborazio berri bat estreinatu dugu aurtengo ikas-turtean: Ultzamaldeko jolasa. Ka-rrika hitza aldarrikatzeko aprobe-txatu zuen imoztarrak lehen saioa, eta beheko QR kodean klik eginez entzun dezakezue.

Ultzamaldeko jolasa




lazgo Badena eta eztena kolabo-razioa Eztena eta badena bihurtu da aurtengoan, baina Eneko lurra-mendik eta Mikel Lakastak segi-tzen dute aurtengo ere historiari lotu-tako saio honetan. Urrian, belearen ingurukoak ekarri zizkiguten.

Eztena eta badena,
Belea



Izaskun Altuna ultzamarrak ere irratiko kolaborazio berri bat egi-nen digu aurtengo, Bagara, izan gine-lako izeneko. Historian itzalpean gelditu diren izen handiko emaku-meak ekarriko dizkigu hilero, eta lehen kolaborazioan, Clara Cam-poamor izan zen protagonista.

Bagara, izan ginelako





Eta, iaz bertan behera gelditu zen kolaborazio zaharra bat ere berreskuratu dugu aurtengoan, kasu honetan, Beramendiko Kataren musika txokoa. Aurten, bigarren abizen bat jarri diogu musika tarte honi: *Kataren kuir musika txokoa* izanen da. Musika eta hausnarketa uztartzen ditu Katak atal honetan, eta lehen saioan, amatasunaren inguruko hausnarketak partekatu ditu gurekin eta entzuleekin.

Kataren kuir musika txokoa, amatasuna



Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa

Dakizuenez, ostiraletan irratsaio berezia egiten dugu Esan Erran irratan, 10:00etatik 11:00etara bitartean, Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa saioak txandaka-

tzen baititugu. Oihana Fernandez Iturri Imozko bizilaguna eta Xabi Altuna ultzamarra izan ditugu musika saioko gonbidatu. Memoriaren Txokoan, berriz, Peter Norman atleta australiarrari eskaini genion saioa. 1968ko Mexikoko joko olimpikoetan, Pantera Beltzen agurra egin zuten bi atletekin konpartitu zuen Normanek podiuma, eta bere

bi kideekin elkartasun keinua egin zuen. Gogor ordainduko zuten hiruerek keinu hori, dena den... gehiago jakin nahi baduzue, ez galdu irratsaioa!

Egun Ero Kantuz



Zorionak Zorionak !




Zoriondu zure laguna Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Eta zu... zer deritzozu oiloaren abortuari buruz?

Horixe abesten zuen Manolo Kabezabolo punk kantautore ospetsuak bere abesti ezagunenetako batean. Bada, Manolo bera egongo da gurekin Ostiral Kulturaletan, eta agian azalduko digu zer pentsatzen ari zen letra hori idatzi zuenean. Baina lehenago... neguko zinema bueltan da!

Lurralde hauetan negua aurreratu egin ohi denez, guk ere aurrea hartzen diogu neguko solstizioari, azaroan hasi eta otsailaren amaierara arte iraungo duen Neguko Zinema zikloarekin. Larraintzarko Bentan, zinema-nobedadeak, euskarazko zinema, familia-zinema, komedia dibertigarriak... gozatzeko aukera izango dugu berriro. Hori guztia pantaila handian, doan edo merkataritza-gune handienetako aretoetara joan beharrik gabe.



Ziklo honen bigarren edizioa da. Neguko zinema iaz hasi baitzen, oso harrera onarekin. Oraingo honetan proiektatzen dugun

lehen filma, **El 47**, gure asmoen erakusgarri ona da. Oraindik karteldegietan jarraitzen duenean, publikoaren eta kritikaren harreara handia izan duelako, Ultzaman ere film honetaz gozatu ahal izan dugu. Marcel Barrenak zuzendua eta Eduard Fernándezek maisuki interpretatua, benetako kasu bat kontatzen du: Manuel Vital, Torre Baróko bizilaguna, 70eko hamarkadan garraio publikorik ez zuen Bartzelonako auzo honetara autobus linea bat eramatea lortu zuen. Matxinada eta auzo-borrokaen istorio zirraragarria.

Dragoiak eta erleak

Hurrengo igandean, azaroaren 10ean txikientzako txanda izan zen: **DRAGOIEN ZAINDARIA** proiektatu genuen. Duela gutxi estreinatu den haurrentzako film honek azken herensuge biziari gatibutasunetik ihes egiten laguntzen dion emakume gazte baten istorioa kontatzen du, eta abentura izugarri batean elkartzen da berarekin, bere altxorrik preziatuena berreskuratzeko: herensugearen azken arrautza, hilezkortasuna lortzeko bertan bizi den boterea nahi duen azti gaizto batek lapurtua.

Azaroaren 17an, oso komedia dibertigarria bat eskainiko dugu: **El vasco**. Mikel protagonista du. Maitasun-haustura baten ondoren, nazkatuta dago Euskal Herrian duen bizitzarekin, eta, horregatik,

Argentinara lanera joateko gonbidapena onartzen dio urruneko ahaide bati. Hala ere, laster konturatu da bere senideak ez duela ezer eskaintzeko. Bere harridurarako, arbasoen lurra zapaldu ez duten baina beren tradizioak pasioz eta modu idealizatuan bizi dituzten euskal ondorengoak bizi dira nagusiki herrian.

Eta azaorarekin bukatzeko, azaroaren 24an, aurreko Goya sarrietako irabazleetako bat: **20.000 especies de abejas**. Cocok zortzi urte ditu, ez dator bat gainerakoen ametsekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek Aitor deitzen diote behin eta berri, baina ez du bere burua izen horretan ikusten. Bere ama Ane, krisi profesional eta sentimentalean murgilduta, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera bidaiatzeko, eta bertan euren bizitzak aldatuko dituen uda biziko dute.

Gogoratu, beraz, igandero 18:30etan zinemara. Gure zinemara, Larraintzarko bentan.

Palestinatik Etxeberrira

Eta neguko zinemarekin batera, kultur ostiraletako programazioak jarraitzen du. Hilabete honetan, gainera, zinema dokumentalari eskainitako bi programa zinematografiko ere eskaintzen dira.

Lehenengoa da, azaroaren 15ean,



19:00etan MANOLO KABEZABOLO: SI TODAVÍA TE KEDAN DIENTES ES KE NO ESTUVISTE AHÍ, Zaragoza punk kantaautoreari eta bere bizitzari buruzko dokumental bat. Eta, adi! Manolo Kabezabolo huraxe bera etorriko zaigu Alberto Andrés Lacastak zuzendutako



dokumental honen aurkezpenera. Bertan, kantariaren ibilbide musikalez hitz egiten digu, baina baita bere bizitzaz eta beste gai batzuez ere, hala nola gaixotasun mentalaz, drogez edo punk iberiar eszenaz, Manolo izan baita eta da horren adierazgarririk nagusienerakoa. Gainontzekoan, zer deritzozu oiloaren abortuaz?, esaten zuen bezala Manolok bere abesti ezagunenetako batean.

Bigarren dokumentala "No estás sola: la lucha contra La Manada" da. Azaoaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin bat eginenez, La Manadaren kasua, San Fermin jaietan gertatu zen bortxaketa eta mundu osoan zehar protestak piztu zituen, aztertzen duen film hau ikusteko aukera izango dugu, testigantza funtseko batzuen bidez. Hilaren 22an izango da, 19:00etan, Larraintzarko Bentan.

Gainera, hilaren 8an, Aitziber Urtañaso artistak eta aktibistak hitzal-



di interesgarria eskainiko digu, Palestinan bizi izandako esperientziaren berri emanez. Eta hilabetea, hilaren 29an, Ane Martija euskal musikaren eszenako modako musiketako baten kontzertuarekin amaituko dugu. Bertan, lehen diskoa aurkeztuko digu Etxeberriko musikariak: "Bidean aurrera". Eta jakina, ez da ahaztu behar ere azaroan zehar literatur nobedade ugari iritsiko direla liburutegira. Zuen zain gaude!

 Patxi Irurzun

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

2024ko azaroa

2024ko irailean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA - Beruete

Laiene Razkin Iribarren, Sonia eta Egoitzen alaba, irailaren 27an jaio zen.

IMOTZ - Zarrantz

Danel Ibañez Lloren, 2022ko azaroaren 17an jaio zen, **Apezetxeko** David eta Idoiaren semea.



▲ Danel bere gurasoekin

“Aupa bat gure gurasoei!”

Ezkontzak:

Mikel Eugui Ilundain, Beuntzakoa, eta Sara Lakuntza irailaren 14an ezkondu ziren. Irañetan biziko dira.



▲ Mikel eta Sara

“Zorion guzia ezkonberriei!”

Heriotzak:

ODIETA - Genbentzu

Luis Maria Irure Etulain, **Bentako** semea, irailaren 7an hil zen, 75 urtetan.



▲ Luis Irure

ULTZAMA - Larraintzar

Celi Astitz Garaikoetxea, **Eskoletxeko** etxekoandrea, irailaren 22an hil zen 93 urtetan.



▲ Celi

“Beti izanen zaituztegu gogoan.”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

Etorkizun zirkularra
eraikitzen dugu

Construimos
un futuro circular



 **residuos de navarra
nafarroako hondakinak**

2024-2025 PROGRAMAZIOA

ORDUA	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
22-06	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
06-08:30	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Musika	Musika
08:30-09	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala		
09-10						Landaberri	Osasun Etxea
10-11	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Gonagorri	Gonagorri
11-13:30	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Musika	Musika
13:30-14	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa		
14-14:30						Hitza Jolas	Kontatzera Noazu
14:30-15	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
15-16						Egonarria	Lur eta Murmur
16-17	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Adi	Gramofonoa
17-18						Reggae Fever	Z-Kluba
18-19	Gelditu Makinak	Oroimen Histerikoa	Ahapetik	BTN	Patiyoko Atzuak	Musika	Musika
19-20	Desgazea	Ad Libitum	Revolutionary Grooves	Broma Gutxi		Berria FM	Kinka
20-21	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Broma Gutxi	Otea Lili
21-22	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Haus of Beats	Sateliteak

- ▶ Gure saio propioak, Esan Erran irratikoak
- ▶ Zebrabidea, Arrosa sareko magazin propioa
- ▶ Euskalerrria Irratia

- ▶ Gure musika
- ▶ Euskadi Irratia
- ▶ Berria Podcastak

- ▶ Arrosa sareko beste irratien programak (Naiz irrata, Argia Podcastak, Antxeta irrata, Arraio irrata, Kontrako Eztarrix, 97 irrata, Txapa irrata, Gure irrata)